



Efoma—Balkano'tik.

«Sacra Romana Rota» deritxon epai-karitzat, bere lanen asiera opor-aldi ostean Ufria 1'n izan eban Lege gizon ospetsu ta ugariak bertan bildu ziran, Aita Santua'ri iker-aldia egiteko. Masimi agurgariak, ildako bazkideen bafi emon ondoren, urteko lanak atzaldu zituan. Iges, 120 auzi ebatzi zituezan, eta oingo beste 160 eldu dira. Aita Santuak itzaldi baten bere poza agertu eutsen, eta adoretu beafik be ez dabela esanaz pozik onetsi zituan.

Ita'la'ko Katoliko-Ekintza'ko neskatilak.

Latefi gustiko Kistar-Ikasbide sari-keta dala ta, 4.000 neskatil Katoliko Ekintzakoak Aita Santua ikertu dabe. Barelli andereñoak Aita Santua'ri agufa egin eutson Bazkunaren bafi emonaz. Urte betean 67.774 bazkide ta 1.200 Bazkun geitu dira. Gustiz 764.862 bazkide dira 13.498 Bazkuntan. Kistar Ikasbidea ikasten eta irakasten lan andia egin dabe, Kistar-Ikasbide idaztiñotan be 700.000 dubarik banandu ditue, eta orain Aita Santua'ren eskuetatik. Sariak taldeari emon dautsez, eta beste bederatzit talderi irabazi dautsienak Aita Santua'ren eskutik saria artuteko eldu ziran. Sariak banandu ondoren Aita Santuak itzaldi eder bat zuzendu eutsen bere afean eukozan 4.000 neskatil. Lau itzetan bere itzaidia sartu gura ebala esan eutsen: Eskefak emotean, poz agertzean, Erabagiak eta Otoitzan. Itzok laburkiro azaldu ta onetsi zituan. Kistar-Ikasti sariketok oso ederto eralduta egon dira Italia gustian.

Bafuko lekaretxeak mixiño efitan.

Mixiñoak gero ta geyago lan egiten dabe, eta kistar bizitza zabal eta sakonago agertzen da mixiño efitan. Onen ezaugafi da, ixileko bizitza daben lekaideak ugaritzea. Ezta ez alpefik XI n Pio'k esan eban, onango lekaide ta lekaimeak, agirian lan egiten dabenak baño «lan geyago» egin leikie mixiñoen alde.

Ointsu Guébriant, Paris'ko erbeste Mixiñoetako Bazkunako lendakariak, itzaldi baten esan eban: Nire erantzupen aspian zelambait dagozan, mixiño erki, Thibet, Yapon, Txina, Annam eta India'tik izpar pozgafi bi dakartzuedaz: 10.000 bihurtutakoel Bateoa emon dautsela, eta zistertar eta beneditar lekaretxearen irazkunda. «Ondoren otoitzean bizia igaroten daben lekaretxeen onurea azaldu eban. Gero ta geyago ugaritzen dira. Eta gaur 128 dira onango lekidetxe eta lekaimetxe, Belgala'n, Nagpur Reunion, Mysore, Kenya, Guyana olandar eta Borne bafarik.

Eta onein antzera beste toki batzuetan be ugaritzen dira, mixiño langileen aldez otoi eta laztasun bizitza egiteko.

Abade Mixiño-zaleen Batza.

Abadeen biotzetan mixiñozaletasuna biztutea, gafantzitsua dala esan beafik ez dago. Euren eskuetan dago, kistar ikasbidean umeai, itzaldietan nagosiei, oñazez gexorik dagozan gustietan, mixiñoen aldezko maitasuna biztu, maitasuna sutu ta oñazez zifnesgeen aldez eskintzen erakustea. Orixe dala-ta, Aita Santua'ren deyari erantzunaz, alde gustietan abade mixiñozaletak baster gustietan alkartu dira, zifnesgeen alde lan egiteko. Gai onetzaz gure *Yon de Olaeta*'k il onen 4'n idazlan eder bat argitaldu dau, *L'Observatore Romano*'n, eta bertan difio lurbirako abadetarik erdiak baño geyago Bazkun onetan dagozala. 22 la-teritan bazkun ori ipiñta dago eta gustiz bazkide diranak 145.009'ra el-tzen dira. Lenengo tokian Italia dago bazkidez (39.224), gero Prantzia (28.330), España (16.103), Alemania (15.941), Belgika (9.565), ta Polonia (8.679). Aspaldiko urteetan sartozten

dan Katoliko arteko mixiñozaletasuna abade onein lanari zor yako.

Zenbat katoliko lurbira gusflan?

Azkenengo zenbakuntza gai onetan «Guida delle Missioni Catholice» «Propaganda Fide»k argitaldu daben idazti edefean aurkitzen da. Bertan ikusi geinke katolikotasunak dauken indafa alde batetik eta bestetik, gizon gustiak bide onera ekarteko egin bear dan lan ikaragaria. Onek atzera ez dausku eragin bear lanerako gogoa biztu baño.

Zenbakuntza onek difionez lurbira gustiko biztanleak 2.053.583.460 dira. oneitatik:

Katolikotafak: 373.469.779. Katoliko geyek edo katekumenoak 1.472.204.

Protestanteak 185.454.607. Protestante geyek 17.215.

Zismatikoak: 143.625.297.

Yudafak: 16.05a.212.

Maomatafak: 260.288.579.

Konfuziotafak: 357.206.954.

Indutafak: 257.206.954.

Sintoistafak: 16.644.000.

Beste zifnesgeak: 126.442.306.

Zifneskera bakoak: 102.192.900.

Ez dakigunak: 225.334.

Emen ikusten da katolikotafak lufeko talderik aundiena egin afean, izugafiko piloa egiten dabela, guzufe erlejiñoa dabenak, eta gustiak gaizkartzeko alegiñak egiteko kistar gustiok beartuak gagozala; Eleizaren agindu ta anai-maitasunak orixe eskatzen dausku. Otoitzez, lanez eta diruz lagundu ba, Mixiñoetan dagozan langile txalogafiei, gure laguntzaren beartizean aurkitzen dira-ta!

Alemania'ko Yasarpema ta yakitunak.

Alemania'ko yasarpemak zifnesteari kalte egiñaz batera, yakintzaren aurka be ba'doa. Idazle ta olerkaririk bikañenak, hitlertafen gurariei burua makurtu gura izan ez dautselako, euren abefia itxi ta erbesterratu bearean aurkitu dira, safitan agintarien aginduz. Antzerkilariak, ereslariak eta be, ospe geyen izan dabenak, bardin egin dabe. Gustiz yakitun ertilar, idazle, irakasle, izpafingilari, injenieru, arkitekto, osagile ta abar *amar mila* bat, erbesterratu bearean aurkitu dira. Idazti ta argitalbenak euneko 50 gitxitu dira, eta argitaltzen diranak be asko gitxiago balio dabe.

Ikastetxe nagusietan ikasleak asko ufitu dira, bertan sartzeko buru-argiari baño, daben eretxieri geyago begirartzen dautsielako. Agintariak eurak argitaldutako zenbakuntzetan ikusten da, 1932'n Ikastetxe Nagusietako ikasleak 129.606 izan zirala, eta 1934'n 95.830'ra yatsi dira. Urtziti edo Teolojia'koak ofaitik ez dira gitxitu 1932'n 4.484 izan ziran eta 1934'n 4.935 izan dira. Nonbait zifnestearen etsayen yasarpemak, egia ezagutu, gafa biztu egin dau bere aldez yokatzeko.

Ez da afitezkoa au, indarkeri ta basatikeria alkafen aizkide diralako, egizko yakintza indarkeriaren etsai da, beti.

Mexlko'ko yasarpema.

Ez da gauza efeza ango nastean, gauzak diran lez yakitea. Baña on gustia galbidean ipinten dabela argi dago, zifneste gustia ondatzeko alegin gustiak egiten dituela argi dago-ta. Ofetarako, Rusia, Alemania ta Italia'n antzera, Latefia yaungoikotzat gurtzera yoten dabe, eta bertako abendaren eskubide te oiturak zaintzeko aitzakiaz, antxiñeko indotafen gurkerara biurtu gura dabe, erbestetik eldu yakene gustia, erlejiñotik asita, yaurtiz. Ofetarako irakasleak beartu egiten ditue erlejiñoen aurka irakatsiek emoten eta zin egin bear dabe eurak ezertako zifneskerarik ez dabela. Latefi bera Eleiza biurtzea nai dabe Matxinda izenean gustia goikoz bera alda-

Naparoa

Iruña.

Bizpairur egunez uralde polita egin digu; baxen beafa, egia efateko.

Euriondo edefa dugu; ots, uso eizira juateko; nik vste, aste untan iragaiten asiko direla.

Ni ez naiz eizira juaiten; baño aroak eta sosoñak erakutsirik ardura zerura bea nagola.

Iri-etxean edo udal etxean, efiko gizonak erabili dituzten gaietan, bat izandu da San Kristobal delako gazteluan, jadanik urte bat badu, ainbeste gizon giltzapeturik daudela; gaztelua ez dela ortarako, eta leen bai leen bearko dela etsi edo bear beazla egin.

Gaztelu ortan, bat zendu delakoz langileak bere asafea agertu dute egun bat, ortziral, lanik egin gabe, baño biarmona aste saria eskuratzeko eguna izaki eta, laneratu ziran.

Ala ere, zenbeit aritu etzirelakotz eta nai izan zutelakoz besteeri debekatv; C. N. T. eta U. G. T. delakoen buruzagiak bildu zituzten eta amar bat gazte geiago.

Adiarazi nai izan dute, gazteluak osasungafizka bear dituen baldintzak ez dituela eta orgaitik il dela.

Egia efateko, San Kristobal, gudu-larien geitatzeko egin dago eta ez gaxoak an idukitzeko ez eta inor giltzapeturik an idukitzeko.

Untaz landara, il dena birleriduna (tuberculose) zelakoz, leku ito arek il duela.

Juanden larunbatean, Andre dena Pilarekoa eta Abenda (erraza)'ren eguna, bi aldetarik jai gñuen.

Goiz artan eurialde gaitza egin zuelakoz, jende guti atera zen delako «Fuente de la teja» non urtero efomeria egiten bai da. Efaza eguna zelakoz, barandak oiaildu zituzten Diputazione eta agintari etxe guztiak.

Gauaz argitu zituzten eta plazan sugaiak efe; ez omen zuten astirik izan gelago egiteko.

Jai ori dela bide J. A. P. delakoek eta «Pensamiento Navarro» egunkariak «imperialismo español» delakoa dute amesten.

Juan den igandean Iruñeko karlistek «Jesus y Maria elizan il meza bat emanazi zuten, Oreja eta Lafañaga jaun zirenen alde.

Juanden Ufiko naasturietan, Afasate-Mondragon-en il zituztelako urte betetzea zuten deitoratu.

Gurbindo eta Esparza jaunak afankura dire, inor ez dela oroitzen, aurtan dela Sancho el Mayor delakoaren ehun urte muga. Guztiak ixilik daudela.

Ufiko argi-ufatzeko efosariore jende asko juaten da, gizonetako ainitzek eliza betetzen dute,

Eusko langileak befik egin zuten galdea onarturik, kilo-ogi bakotzaren saneufia sos batez gutitu dute edo merketu.

Eusko langileak larunbatean bildu

tuaz. Katolikoan artean indatafetan lenagoko zifnesge aldiko ainbat gauza nastuta dabez eta Gotzain batek esan dabenez, lan gogofa egin bearko da Katoliko Ekintza-bidez, efi lauen aldez egiteko.

M'tar G.

ziren Alfaro jaunaren mintzaldi bat entzuteko.

Gazteiz-ko eusko langilen alde lan andiak egin omen ditu eta «Cooperativas» delako antolapenetan nagusi delakoz, mintzaldi eder bat egin zuen.

Oloren-eko Harmonie delakoaren musikariak egun batez egon ziren eta berehala itzuli ziren.

La Reforma Agraria delako lege befiari asiera emateko, Diputazioneak entzun dezazke «Baigofi» delako baztefa erosi eta zatitu nai duten efiak.

Estela aldian esi dire zerbeit egin beafez: Baigofi ori ere, alde artakoa da.

Irakaslegoan sartzeko, azterketak egin dituztenetan; befogeta eta iru irakasleme eta befogeta irakasle onartuak izan dire.

Astelenean esi zuten irugañen etsamiña edo «auferi irakastea» (ejerc'cio practico) Bafiobero jaun lege gizona; nastale gofi geienen aldeztelea, San Kristobal en giltzapeturik daudenak ikusten, egon omen da.

Orai, guk baño obeki badaki nola dauden an daudenak; ni ez naiz egon ta.

Beste eliza bat ebaster dutela, Mendibil efiko; atea ezin idekiz, nai izan dute ezkil dofetik eta ango atea ere ezin bota, etsitu zuten.

Oraiko eliza ebasteak zertan ote dago?

Diputado abertzaleak, poliki lanean ari direla eta «La Voz de Navarra» egunkariak, dakafa, Diputado bilkuran egin duten galdea.

Lege nagusiaren laguntzaz baliaturik, galdegin dute «kristau-ikasbidea» ren ikastarora, eskoletan ipintzeko, ortarako aski dela gurasoek galdegitea eta bai irakaslek; berek emateko edo norbaitek.

Olite-ko efiñ Gafan jaunak eginazi du eskol-efxe bet eta igandean onetsi zuten, eta berehala bilkura bat egin zuten esbolako juntariak.

Eldu den igandean, emengo Union Navarra delakoek autobusetan juan gogo dute Donostia-ra, Gil Robles entzuteko.

Juan den igandean «Arenas» eta Osasuna zuten faboleko partida Osasuna-koek galdu zuten; besteek iru gol eginez.

Azken merkatuan, txefi eta aretze ainitz saldu zen.

440 txefi eta 50 aretze; txefiek bat beste kilo-bizirik 2,25 pezeta egin zuten. Aretzek befiz 1,90 pezeta kilo bizirik.

Larunbatean itzuli ziren Sierra Andia delakotik, zortzi egunez an egon diren gudulari saldoak; gudu ariketak egiten.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duela.

LAKEKO

Bizkaya

Mañari.

Elizkixun begikoa.

Ila onen 20'gn. emeko elezan be, enparauko elezetan lez, Zinismen-Zabekunde-aldez elizkixun edefak egingo dira. ¡Elizkixunaren onuratsua..! Otoitz, eskar (l'mosna) ta abar egiñaz, kistar gustijok zinismenaren-aldez, al-doguna egin biar dogu...

Urtsule deuna.

Urtsule deunaren eguna, datofen astelenez emen jai ospatuko dogu. Neskut ta ziñopa deun onen eguna, efi-ontan, gomutan eztan alditik ona, beti jai ospatzen da-ta. Bere irudi bafija be egun ofetan onetsiko da.

Baía, entzun dogunez, egun ofetan, elizkixunak ezeze, beste «zegozertxuk» be egingo dira; soka tira, sefaketa-yokua ta abar egingo ei dira ta... Ori etxagok txarto be... Beste «zegozertxuok» zer onak ba-dozak beintzat... dana yagok ondo...

Agurtu.

Beitia'tar Mariñe ta Aretioaurtena'tar Susane emakume begikoa, astelenez agurtu genduzan emen.

Urkiola'n.

Igandez, Urkiola'ganian, «Urijena» eresten yakon jaya ospatu zan. Ori zala ta, elizkixun edefak egin ziran. Eguraldi bada-ezpadakua zelako edo, Urkiola'ra lagun askorik etzan eldu; larunbatako euritiak, jentiarri «atzera-mordo» eragingo eutson...

Bertaratu zan jentia, ofatik baña, jente «desentia» ixan zan... Danak edo geyenak, euren aboetan euzkera garbija erabilien; ijitorañoko gustijak euzkera pafa pafa egiten eben eta. Bai-ba, ijitoak, herbetea, izketa edo «lenguaje» asko jakin be ta... Ofek, euzkeldunen artian euzkeraz, españafen artian españeraz, ta pekintafen artian pekiñeraz ta abar egiñaz, euren biximoduan zintzo jokatzan dabe beti... Bai biar be...

MAÑARIKO

Eunak eta sofieko egiñak Zea'ra'tar Erupin

Cenderia 15 Bilbao

Barinaga.

Lege barijak.

Nekazarijontzako beti dagoz espaldijan lege-gei barijak, ije zoratu eragiteko beste. ¡Zer da au! Bateko zofu truketea bada giea edo agirija bear dogula, zenbat kilo arto ta gari eyoten jakin erazoteko, besteko efa-dijak efe bear ba-doguz be, urtean

BANCO DEL COMERCIO

GRAN VÍA KALEAN.—BILBAO

1935'gnko Ira'la'ren 1'gotik Banco gustiai alan agindu yakelako onexek ixango dira diruen irebaziak

Noizgurako artu emonak (Cuentas corrientes)	1,25 %
Aufezki-kutxa noznai atarateko	2,50 »
Iminiña iru iiebetian ez »	2,50 »
Iminiña sei iiebetian ez »	3,00 »
Iminiña urte betian ez »	3,50 »